

## World Kafea, diagnostikoaren emaitzak ezagutarazteko eta sinergiak bilatzeko



Aire zabaleko  
eremu eta eraikinak



Garraioa



Etxebizitza



Partaidetza eta  
gizarte ehuna



Errespetua eta  
inklusioa



Herritarren partaidetza  
eta enplegua



Komunikazioa  
eta informazioa



Gizarte eta osasun  
zerbitzuak

## World Kafea, diagnostikoaren emaitzak ezagutarazteko eta sinergiak bilatzeko

Diagnostikoan landu eta ondorioztatu ditugun puntuak tokiko beste elkarte eta eragile batzuekin partekatu nahi izan ditugu; era berean, zenbait gairen inguruan haiek egindako ekarpenak aztertu ditugu eta sinergiak zehazteko aukerei erreparatu diegu.

### 1. Erakunde sustatzaileak

Igorreko Udala

Jubilatuen Elkartea

Bizi batzordea

### 2. Erakunde mota

Publikoa

### 3. Xede taldea

Tokiko eragileei eta elkarteei dei egin zitzaien diagnostikoaren emaitzak partekatzeko saio berezian parte har zezaten. Adinekoen inguruko diagnostikoan aztertutakoa tokiko beste eragile eta talde batzuekin partekatzea eta haien iritziak eta ekarpenak biltzea izan zen helburua.

### 4. Lurralde eremua

Igorre (Bizkaia)

### 5. Egoera

Amaituta Hasiera data: 2017ko abendua Amaiera data: 2017ko abendua

## 6. Etiketak

Irigarritasuna, mugikortasuna, hurbiltasuna, elkartasuna, komunikazioa, partaidetza

## 7. Helburuak

Ekintzaren helburu orokorra tokiko zenbait elkarte eta eragileri diagnostikoan jasotako ondorioen berri ematea izan zen. Hain zuzen ere, adinekoekin zerikusia duten taldeekin bildu ginen, diagnostikoa ezagutzera eman eta jendaurrean aurkezteko.

Lagunkoitasunaren azterketan inplikaturako taldeak eta tokiko elkarteak lankidetzan aritzeko eremuak zehaztea izan zen berariazko helburua.

## 8. Metodologia

Batzorde eragileak antolatu du ekintza. Tokiko elkarte eta eragileak gutun pertsonalizatuaren bidez gonbidatu ditugu, zuzenean, jardueran parte hartzera (batzorde eragileko kide bakoitzak zuzenean gonbidatu ditu elkarte eta eragile batzuk). Ekintza egin baino astebete lehenago hitzordua gogorarazteko mezu elektronikoa bidali genien parte hartzaileei, eta egunean bertan telefonoz deitu genien.

Saioan, BIZI batzorde eragileko hiruzpalau kide mahai banatan jarri ziren gainerako partaideekin batera, eta mahai bakoitzean bi gai aztertu zituzten, OMEk proposatzen duenez. Mahai bakoitzean, kideek eginkizun zehatz bat izan zuten: bi lagun arduratu ziren gai bakoitza azaltzeaz, beste batek idazkari lanak egin zituen, eta beste bati denbora kontrolatzea egokitu zitzaion. Batzordeko kideek gaiei buruzko azalpen laburra eskaini zuten eta, jarraian, eragileekin batera ondorioak aztertu zituzten; hala, eragileen ekarpenak bildu ahal izan zituzten. Elkarteetako ordezkariak eta eragileak mahai batetik bestera joan ziren, eta 10 minutu izan zituzten gai bakoitzari buruz hitz egiteko.

Bukaeran, ondorioak partekatu zituzten eta saioaren ebaluazioa egin zuten.

## 9. Alderdi berritzaileak

Diagnostikoa ezagutzeko eta partekatzeko modu dinamikoa dela uste dugu, eta gainera, adinekoak zuzenean inplikatzen eta ahalduntzen ditu.

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

Parte hartzaileek inkesta labur bat erantzun zuten jarduera bukatzean.